

3. KULTURA, HIZKUNTZA POLITIKA, HEZKUNTZA ETA KIROLA

SARRERA

Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrak hezkuntza sustatzen du bere eskumeneko maila desberdinetan, kultura sustatzeko jarduera guztiak bultzatu eta kudeatzen ditu, eta kirol-praktika sustatzen du herritarren artean.

a) Kultura

- Kultur Plan Estrategiko berri bat sortu eta bultzatzea, Iruñeko kultur aberastasuna bere eginen duena, oso-osorik.
- Iruñeko kultur bizitasuna sustatzea, azpiegiturak sorturik eta kalitatezko ekoizpenak programatuta.
- Kultura sustatu eta hedatzea, Iruñeko hizkuntzetan lan eginda.
- Kultur ekipamenduak sortu eta gizartearen partaidetza dinamizatzea.
- Hiriko espazioa zabaltzea eta indartzea, kultur xedeei begira.
- Liburutegi publikoak eta irakurzaletasuna sustatzea.
- Argitara ematea Udalaren argitalpen zientifiko eta dibulgaziozkoak.
- Kolektibo profesionalen kultur jarduna indartu eta sustatzea.
- Hiriko kultur erakunde eta entitateen ekimenak, funtzionamendua eta partaidetza bultzatzea.
- Iruñeak berezko dituen gizarte- eta kultura-jarduerak sustatzea, hala nola Sanferminak eta ekitaldi tradizionalak.
- Jarduera-programak sustatu eta garatzea Civivox zentroetan, kogestioko guneak egituratzeko xedeari helduta.
- Sormena sustatu eta arte plastikoen, antzerkiaren eta musikaren adierazpen garaikideak hedatzea.
- Programazio artistikoa koordinatzea, Gayarre Antzokia Fundazioaren bidez.
- Udalaren arte-ondarea handiagotzeko bultzada.
- Artista gazteen sustapen profesionala, haiei bereziki zuzendutako lehiaketak antolatuta.

b) Hizkuntza Politika

- Euskararen erabilera eta sustapenerako normalizazio-jarduketak bultzatzea.
- Lankidetzan aritzea, elkarrekin lanean, euskararen inguruan ari diren kolektiboekin.
- Giza-baliabideak zein bitarteko materialak ezartzea, euskaldun guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
- Jarduketak sustatzea euskara ikusgarri egiteko.

c) Hezkuntza

- Mantentze- eta sustatze-lanak hezkuntza-instalazioetan: ikastetxe publikoak, Musika Eskola, etab.
- Ikastetxe publikoak diren eraikinen kontserbatze-, mantentze- eta zaintze-lanak.
- Instalazio horiek eskolaz kanpoko orduetan erabiltzeko koordinazioa.
- Herritar guztiei zuzendutako hezkuntza-programak garatzea.
- Ikastetxeek garatzen dituzten jarduerak sustatu eta guraso-elkarteei (IGE) haien zereginetan laguntzea, diru-laguntzen edo programa berezien bitartez.
- Lankidetza unibertsitateekin.
- Araubide bereziko musika-irakaskuntzaren sustapena eta Joaquín Maya Musika Eskolaren kudeaketa.
- Iruñeko Haur Eskolen Erakunde Autonomoa alor honi atxikirik egotearen ondoriozko eginkizunak.

d) Kirola

- Udalaren kirol-instalazioen mantentze- eta sustatze-lanak.
- Adin eta mota orotako herritarren jarduera fisikoa bultzatzeko proiektuak sustatu eta abiaraztea.
- Kirol-programak eta -ikuskizunak.
- Lankidetza kirol-entitateekin.
- Kirol-emanaldien sustapena.

KULTURA

CIVIVOX SAREA

Iruñeko Udalaren Civivox zentroen sareak 699.762 erabiltzaile hartu zituen guztira 2016an, iaz baino % 2,5 gehiago. Horietatik, % 53k Udalak antolatutako jardueraren batean parte hartu zuten, eta % 47k, aldiz, esparruak lagatzeko udal zerbitzua erabili zuten. Erabiltzaile-kopururik altuena da datu historikoak biltzen direnetik, nahiz eta udal-programetan parte hartu dutenen kopurua aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen (8.400etik gora pertsona gutxiago). Zehazki, 2016an zehar, 372.439 pertsonak izena eman zuten Udalak Civivox sarean antolatutako jardueretan, eta 327.323 pertsonak esparruak lagatzeko udal zerbitzua erabili zuten.

Civivox Sarea Kondestable, Zabalguneko, Iturramako, Juslarrochako, Mendillorriko, Milagrosako eta Sanduzelaiko zentroek osatzen dute. 2016an zehar, Udalak 1.459 jarduera antolatu zituen, iaz baino % 6,4 gehiago. Eremu desberdinak (arte plastikoak, argazkigintza, informatika, historia eta artea, literatura, musika eta antzerkia, sukaldaritza, ongizatea, eta abar) zein kultur hedapen eta sustapenerako jarduerak (solasaldiak, hitzaldiak, musika-emanaldiak, antzerkia eta dantza, irteerak eta bisitak, lehiaketak, eta abar) jorratzen dituzte jarduerak.

Erabiltzaile gehien hartu zituen zentroa Iturrama izan zen (103.267), eta gutxien, Milagrosa (22.698). Aldearen arrazoi nagusia zentroen instalazioak dira, eta hori programazioarekin orekatzen saiatzen da, espazioak ahalbidetzen dituen jarduerak (ikastaroak, hitzaldiak edo saioak, adibidez) lehenetsita zentro bakoitzean. Aipatzeko modukoa da askoz ere erabiltzaile gehiago izan zituela Kondestablek, orain dela gutxi (2009an) zabaldu bazen ere. 2016an, 80.170 erabiltzaile jaso zituen.

Civivox sarean 2016ko urtariletik abendura arte programatutako udal-jarduerak

Civivox zentroa	Ikastaroak	Solas./Hitzaldiak	Txangoak/Bisitak	Festak/Ikuskizunak	Lehiaketak	Erakusk.	Zinema	Beste zenbait	Guztira
Kondestable	84	36	13	41	1	27	4	53	259
Zabalgunea	98	15	13	19	--	9	10	7	171
Iturrama	204	5	13	48	1	12	21	14	318
Juslarrocha	83	13	13	26	1	11	4	9	160
Mendillorri	100	19	14	40	1	11	10	33	228
Milagrosa	55	15	14	11	--	10	--	21	126
Sanduzelai	63	23	14	32	1	11	3	0	147
Atari zabalean/ Besteak	3	--	--	21	4	--	22	--	50

Parte-hartzaileak Civivox sareko udal-jardueretan 2016ko urtarrila-abendua

Civivox zentroa	Izena emand.	Parte hartut.	Sola./Hit z.	Txan./Bi sitak	Festak/Iku skiz.	Lehiak.	Erakusk.	Zinema	Beste zenbait	PAI	Bainu./Ika sg.	Guztir.
Kondestable	1.634	12.481	1.338	274	6.612	175	49.852	135	618	9.111	--	80.5
Zabalgunea	1.320	17.135	516	274	525	175	6.357	167	54	1.483	6.898	33.5
Iturrama	3.482	47.969	187	274	6.774	174	11.353	1.193	196	2.062	33.158	103.3
Juslarrocha	1.561	19.285	305	274	2.656	174	5.542	240	96	1.946	--	30.5
Mendillorri	1.757	20.785	417	274	3.547	174	9.153	201	332	3.084	--	37.9
Milagrosa	946	11.939	539	274	391	174	4.365	--	330	896	3.790	22.6
Sanduzelai	1.172	17.270	1.052	273	2.317	174	12.208	7	--	1.832	--	35.1
Beste zenbait	95	535	--	--	18.495	--	--	9.573	--	--	--	28.6
Guztira	11.967	147.399	4.354	1.917	41.317	1.220	98.830	11.516	1.626	20.414	43.846	372.4

Eremuak lagatzeari dagokionez, Civivox sareak eremuak lagatzeko zerbitzua eskaintzen die herritarren kolektibo eta elkarteei, jarduerak egin ditzaten, bai modu iraunkorren, bai aldi baterako. 2016an, 811 elkarte, kolektibo edo erakundek egin zuten beren jarduera-programa Civivox sarean. Kulturalak, soziokulturalak, politikoak eta sindikalak izan ohi dira elkarte horiek. Talde artistikoek, bizilagunen elkarteek eta jabeen komunitateek erabili ohi dute. Askotarikoak dira egiten dituzten jarduerak, hala nola ikastaroak, bilerak, entseguak, jaiak, haur-animazioa, erakusketak, hitzaldiak eta ikuskizunak.

Zehazki, 2016an, 143 elkarte eta kolektibok guztira egin zituzten jarduerak modu iraunkorren, zeinetan 200.962 pertsonak parte hartu baitzuten; 676 elkarte edo erakundek, aldiz, egin zituzten aldi baterako jarduerak, 85.433 parte-hartzaile erakarri zituztenak. Halaber, 2016an zehar, 40.928 parte-hartzaile inplikatu ziren "udal lagatzeetan", 74 erakunderen eskutik.

Lagatzeak guztira 2016ko urtarrila-abendua

ERAKUSKETAK

Iruñeko Udalak zabalik du oraindik **Pablo Sarasateren ondarearen gaineko erakusketa iraunkorra**, musikari iruindar entzutetsuak Iruñeko Udalari egindako dohaintzaren funts nagusiak doan ikusteko aukera ematen duena. Kondestablearen Jauregiko areto batean dago, eta, han, objektuak, partiturak, soinu-elementuak eta ikus-entzunezkoak daude. Pablo

Sarasateren ondareak 373 pieza ditu guztira, Udalarenak guztiak. Haietatik, 150 pieza modu iraunkorrean daude ikusgai Kondestablearen Jauregiko lehen solairuan; gainerakoak, aldiz, arte plastikoen biltegietan eta Udal Agiritegian gordetzen dira, zeinak argazkiak, paper-dokumentuak eta bitxi baliotsuak biltzen baititu.

2016an, **49 aldi baterako erakusketa egin ziren** Ziudadelako erakusketa-aretoetan. Doakoak izan ziren haiek guztiak, eta gehienek erakustaldirako katalogo propioa ekarri zuten. **116.614 bisita** jaso zituzten guztira, hau da, 2.243 bisitari batez beste erakusketa bakoitzeko; batzuek 5.000 bisita baino gehiago izan zituzten, hala nola Iñaki Larrearenak, Jesús Basianorenak, Itsas Modelismoko Nafar Elkartearenak eta Iruña Cormenzanarenak.

Erakusketa guztiak mahai-inguruen bidez aurkeztu ziren, eta udal-webgunean ezagutarazi; eta haietako askotan formatu desberdinetako dinamizazio-ekintzak egin ziren, hala nola solasaldiak, hitzaldiak, bisita gidatuak eta musika-emanaldiak.

Erregistratutako bisita-kopurua kontuan hartuta, Ziudadela da erakusketa-espazio bisitatuena Nafarroa osoan.

Erakusketa	Aretoa	Hasiera	Amaiera	Bisitak
Alfonso Ascunce	Armen Aretoa -1	2016/01/15	2016/02/14	1.879
Florentino Retana	Mistoak-Labea	2016/01/15	2016/02/14	2.483
Carlos Cánovas	Bolborategia	2016/01/22	2016/02/28	1.687
Santiago Bañón	Armen Aretoa -2	2016/01/29	2016/02/28	1.481
Kolektiboa - Maslow-en teorema	Armen Aretoa -1	2016/02/19	2016/03/13	1.020
Erretan	Mistoak-B	2016/02/19	2016/03/13	1.522
Miguel Ayesa	Labea	2016/02/26	2016/03/27	1.945
Leire Urbeltz	Mistoak-1	2016/02/26	2016/03/27	1.462
Lorenzo Imirizaldu "Mitxel"	Bolborategia	2016/03/04	2016/04/03	1.513
José Luis López Ros	Mistoak-B	2016/03/18	2016/04/17	3.022
Alcobendas Argazki Bilduma	Armen Aretoa -1-2	2016/03/18	2016/04/17	4.055
Victor Manzanal	Bolborategia	2016/04/08	2016/05/08	1.487
Fernando Molina	Labea	2016/04/08	2016/05/16	2.869
Artea Oinez'16	Armen Aretoa -1	2016/04/22	2016/05/22	3.455
Marta Loreda Olaiz	Mistoak-B	2016/04/22	2016/05/22	2.635
Alexandra Gaphian	Mistoak-1	2016/04/26	2016/05/29	1.583
Juan Manuel Fernández Cuichan	Armen Aretoa -2	2016/04/29	2016/05/22	635
Iñigo Manterola	Bolborategia	2016/05/13	2016/06/26	1.834
Santos Bregaña Etxeberria	Labea	2016/05/20	2016/06/05	1.381
Ángel Menéndez	Armen Aretoa -1	2016/05/27	2016/06/26	1.080

Javier Muro	Mistoak-B	2016/05/27	2016/06/26	1.821
Paco Sada	Armen Aretoa -2	2016/06/03	2016/06/27	642
M ^a Ángeles Muerza	Mistoak-1	2016/06/03	2016/06/26	1.061
Iñaki Larrea	Labea	2016/06/10	2016/08/21	6.627
Jesús Basiano	Armen Aretoa -1	2016/07/22	2016/08/28	7.305
Juan Manuel Díaz Burgos	Bolborategia	2016/07/22	2016/08/28	4.634
APAC Kolektiboa - FEM Jaialdia	Armen Aretoa -2	2016/07/28	2016/08/28	1.326
Itsas Modelismoko Nafar Elkarte	Mistoak-1	2016/07/29	2016/09/16	9.515
Iruña Cormenzana	Mistoak-B	2016/07/29	2016/09/04	6.223
Fernando García Guembe	Labea	2016/08/26	2016/09/25	1.977
Txon Pomés	Bolborategia	2016/09/02	2016/09/26	2.115
Komikiaren VII. Erakustaldia	Armen Aretoa -1-2	2016/09/03	2016/10/02	3.719
Arte Gaztearen Topaketak-KGNI-IkusEntz.	Armen Aretoa-B	2016/09/05	2016/09/11	320
Arte Gaztearen Topaketak-KGNI-Art.Plas.	Mistoak-B	2016/09/05	2016/09/11	266
Juan Manuel Castro Prieto	Mistoak-B	2016/09/23	2016/10/30	1.790
Juan Manuel Castro Prieto	Mistoak-1	2016/09/23	2016/10/30	1.644
Aizpea Lasa	Labea	2016/09/30	2016/11/06	3.115
Mapamunistak 2016 Hiztegia	Armen Aretoa -1	2016/10/06	2016/11/06	1.256
Natxo Barberena	Bolborategia	2016/10/07	2016/11/06	2.366
Gervasio Sánchez-Afrika ezinbestekoa	Mistoak-B	2016/11/02	2016/12/11	2.635
Cesar Sancho	Bolborategia	2016/11/11	2016/12/11	1.812
ZZZ Kolektiboa- Artea letra txikiz	Mistoak-1	2016/11/11	2016/01/08	3.001
Aser Longás	Armen Aretoa -2	2016/11/18	2016/01/08	1.175
Iñaki Ruiz de Eguino	Armen Aretoa -1	2016/11/18	2016/01/08	2.142
Alfredo Sada elkarte	Armen Aretoa -2	2016/12/16	2017/01/29	1.779
Itxaso Razkin	Bolborategia	2016/12/16	2017/01/22	1.701
Carlos López	Mistoak-B	2016/12/16	2017/01/22	2.582
Pipo de la Hoz	Labea	2016/12/16	2017/01/29	2.215
Fruitu lehor bat... - Eguberrietako tailerrak*	Armen Aretoa-B	2016/12/27	2017/01/03	822
BISITARIAK GUZTIRA	116.614			

* Fruitu lehor bat igerileku batean oraindik ere fruitu lehorra da?

Armen Aretoako beheko solairuak haurrentzako sormen-tailerren jarduera hartu zuen Eguberrietan, abenduaren 27tik urtarrilaren 4ra, goizez; arratsaldez, ordea, jende guztientzat zen jarduera, tokiko artistekin egindako topaketen eskutik.

4.567 euro bildu ziren katalogoen salmentaren bidez.

Ziudadelako eraikinetako aretoetan egindakoez gain, bestelako aldi baterako erakusketak ere egin ziren beste espazio eta euskarri batzuetan:

Ziudadelaren barruko barrutia:

- Antzekotasuna: Esku-hartzeak naturan (Land art), Pipo de la Hoz-ena. Apirilaren 1etik aurrera
- Zalantzak argitu: SAREk, Iruñerriko Mankomunitateak, Iruñeko Antzerki Eskolak eta Huarte Arte Garaikideko Zentroak antolatutako kanpainaren barruan artistikoki esku hartutako edukiontzien aurkezpena. Abenduaren 15etik.

Kondestablearen Jauregia

- José M^a Monguillot. Pintura – 1. aretoa Urtarrilaren 17ra arte
- Inés Zudaire. Pintura – 1. aretoa Apirilak 11-30
- 2016ko sanferminetako kartelak – Patioa. Ekainak 15-Uztailak 31
- 'Versus' Maite Hernández Mateo, Clemente Bernad, Daniel Ochoa de Olza eta Cristina Núñez. Beheko solairuko patioan: Uztailak 1-Abuztuak 31
- Tirabirak (EHU / NUP). 2. aretoa. Irailak 3-Urriak 2
- Amaiur – Atondoa, Patioa, Areto Gotikoa. Urriaren 29ra arte
- Edertasun habitagarriak: Domingo Iturgáiz eta Miguel Iribertegui – 1. aretoa. Abenduak 15-Urtarrilak 18

Hiriko beste eremu berezi batzuk:

- **Iruñeko autobus-geltokia.** Mugimendu-askatasunik gabe. Giza eskubiderik gabe. Mundubat. Ekainak 28-Irailak 12
- **Otras luces/Bestelako argiak.** Iruñeko Bideoarte Erakusketa – Abenduak 21-Urtarrilak 1 10 bideoarte-pieza, hiriko 7 eremu berezitan proiektatuta: Guadalupeko bastioia / Gayarre antzokiaren atzealdea. Pellejerías zokoa / Francisco Seminario pasabidea. Hilarión Eslava kalea / Xabier kalea / Frantziako portalea.

Aldi baterako erakusketak 2016

Ziudadelako aretoak		52
Armen Aretoa	19	
Mistoen Eraikina	16	
Bolborategia	9	
Labea	8	
Ziudadelako barrutia		2
Kondestablearen Jauregia		7
Beste gune batzuk		2
ERAKUSKETAK, GUZTIRA		63

ARTE GARAIKIDEAREN BILDUMA

Iruñeko Udalaren Arte Garaikidearen Bildumak 600 arte-lan baino gehiago ditu egun, eta Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrak egindako datu-base batean daude katalogatuta guztiak. Etengabe berrikusten da datu-basea, eta obra berriekei edo obren gaineko datu berriekei handitzen da.

XX. mendeko azken herenetik gaur arteko arte-lanek osatzen dute bilduma, eta Nafarroako sortzaile garaikide nagusiak ez ezik, nazioko zein nazioarteko hainbat figura ospetsu ere hartzen ditu. Udalak berak erosi ditu pieza gehienak, baina dohaintzetatik datozen piezak ere badira.

2016an, zabaldu egin zen bilduma, 2 obra berri sartu baitziren; Nestor Basterretxearenak ziren biak, eta Nafarroa Bizirik Fundazioari erosi zizkion Udalak. ‘Enneco’ (2013) Korten altzairua. 45 x 30 x 27 cm. Edizioa: 09/100. Balorazio ekonomikoa: 2.420 euro. ‘Miguel Bertizkoa’ (2012) Eskulan paperaren gaineko lan grafikoa 71 x 41 cm. Edizioa: 87/ 100. Balorazio ekonomikoa: 336 euro.

Horrez gain, 2015ean hasitako dibulgazio-proiektuarekin jarraitu zen 2016an, Hezkuntza Alorreko teknikariekin elkarlanean. “Mudantzan” izenburuko proiektuak bildumaren jatorrizko lan batzuk aukeratu, eta erakusketa bat egiten du haiekin Iruñeko ikastetxeetan bi astez. Proiektu didaktiko bat ere badu, eta aukeratutako piezei buruzko jarduerak egiteko aukera ematen du.

LIBURUTEGIAK

Hirian bederatzi liburutegi publiko dira eta Nafarroako Gobernuarekin egindako hitzarmenaren bidez kudeatzen dira: Txantrea, Etxabakoitz, Iturrama, Mendillorri, Milagrosa, Sanduzelai, San Pedro, Yamaguchi eta San Frantzisko. Iruñeko liburutegi publikoetako funtsak 256.536 dokumentu ditu, eta liburuak dira gehienak: 213.590; ikus-entzunezko DVD edo bideoak 24.679 dira, eta elektronikoak, cd edo dvd-rom-ak, 7.979. Urtez urte handitzen da funtsa (% 1,2, 2016an), eta Iruñeko Udalak finantzatzen du ia osorik; 70.000 euroko inbertsioa egiten du, bederatzi liburutegietan banatuta.

Txantrea, San Pedro eta Yamaguchiko liburutegiak dira funts gehien dituztenak (35.000 ale baino gehiago); Milagrosa eta Sanduzelaiko liburutegiak datoz gero (30.000 ale inguru); gainerakoak nahiko urrun daude, 20.000na ale inguru baitituzte.

Liburutegi publikoetako dokumentu-funtsa 2016an

Liburutegia	Liburuak	Aldizkariak Izenburuak	Soinuduna k: CD, diskoak	Ikus- entzunezk oak DVD Bideoa	Elektronikoak CD/DVD-ROM	Gainera koak	Bidean dauden aldian behingo argit.	Guztira
Txantrea	32.080	187	1.830	4.541	549	10	50	39.247
Etxabakoitz	19.809	22	418	2.354	565	53	4	23.225
Iturrama	16.199	17	--	--	5.773	6	17	22.012
Mendillorri	15.633	9	1.216	2.524	146	1	25	19.554
Milagrosa	28.515	213	1.142	2.675	273	13	36	32.867
San Frantzisko	17.120	24	550	2.225	49	3	33	20.004
Sanduzelai	22.144	98	962	2.844	80	8	55	26.191
San Pedro	32.178	163	989	2.994	394	23	40	36.781
Yamaguchi	29.912	157	1.710	4.522	150	173	31	36.655
Guztira	213.590	890	8.817	24.679	7.979	290	291	256.536

Maileguei dagokienez, 194.000tik gora egin zituzten Iruñeko bederatzi liburutegiek 2016an, hau da, ia baino % 4 gutxiago. Yamaguchi eta San Frantzisko liburutegiak dira maileguz dokumentu gehien utzi zituztenak, 30.000 mailegu baino gehiagorekin. Liburuen mailegua nagusitu zen (% 63) ikus-entzunezko eta soinudunen gainetik (%37); halere, Iturrama, San Frantzisko eta Yamaguchiko liburutegietan parekatzen ari dira ikus-entzunezkoen eta liburuen maileguen kopuruak.

Liburutegi publikoen mailegu-zerbitzua 2016an

Liburutegia	Liburuak	Aldizkariak	Soinudunak	Ikus-entzunezkoak	Elektronikoak	Gainerakoak	Guztira
Txantrea	15.122	151	1.433	7.219	64	--	23.989
Etxabakoitz	1.341	--	135	8	11	--	1.495
Iturrama	14.956	314	--	11.065	23	--	26.358
Mendillorri	15.980	301	277	6.786	34	--	23.378
Milagrosa	10.265	181	297	5.081	63	--	15.887
San Frantzisko	17.550	305	1.308	12.941	68	12	32.184
Sanduzelai	10.901	215	475	3.326	23	8	14.948
San Pedro	18.705	247	602	6.461	178	22	26.215
Yamaguchi	18.297	219	690	10.234	33	646	30.119
GUZTIRA	123.117	1.933	5.217	63.121	497	688	194.573

2016an zehar, gora egin zuen Iruñeko liburutegi publikoetara egindako bisita-kopuruak, iaz baino % 13 gehiago izan baitziren: 559.686 bisitari, zehazki. San Frantziskoko liburutegi publikoak jaso zituen bisitarik gehien: 117.941etik gora bisitari urteko. Hurrengoak Txantreakoa eta Mendillorrikoa dira, 90.000 bisitari inguru hartu baitzituzten.

Liburutegietan izena emandako pertsonak 53.861 ziren (% 84 helduak eta % 16 haurrak), eta, haietatik, 12.867 Yamaguchiko liburutegian zeuden; hain zuzen ere, hori da izena emandako pertsona gehien dituen liburutegia; Etxabakoizkoa da gutxien dituen, aldiz, 703 lagun baitaude han. Urtetik urtera handitzen da izena emandakoen kopurua liburutegi guztietan, eta San Frantziskokoa da alta gehien izan zituena: 518.

Internetera konektatzeko zerbitzu publikoa dute bederatziek. 2016an, 54.625 internet-saio zenbatu ziren.

Liburutegi publikoen erabilera 2016an

Liburutegia	Bisitariak Kalkulua	Erabiltzaile berrien alta 2016an			Izena emandako erabiltzaileak guztira			Internet- erabiltzailea k
		Haur Hezkuntza	Helduak	Guztira	Haur Hezkuntza	Helduak	Guztira	
Txantrea	90.210	142	113	255	1.150	6.550	7.700	7.250
Etxabakoitz	4.660	14	11	25	108	595	703	1.212
Iturrama	55.082	94	134	228	838	5.058	5.896	4.574
Mendillorri	89.033	106	126	232	1.072	4.502	5.574	3.778
Milagrosa	43.354	96	113	209	646	6.060	6.706	6.584
San Frantzisko	117.941	128	390	518	569	1.579	2.148	17.605
Sanduzelai	50.867	88	110	198	909	3.828	4.737	4.622
San Pedro	51.776	192	136	328	1.814	5.746	7.560	5.429
Yamaguchi	56.763	88	101	189	660	12.207	12.867	3.571
Guztira	559.686	948	1.234	2.182	7.766	46.125	53.891	54.625

Irakurtzera animatzeko jarduerak egiten dituzte udal-liburutegiek urtean zehar, bai haurrei, bai helduei zuzendutakoak. Asteaz edo hilean behin, liburutegi bakoitzak irakurketaren inguruko zenbait ekitaldi antolatzen ditu, hala nola irakurketa-klubak, ipuin-kontalariak, kontzertuak, zinema-proiektzioak edo hitzaldiak, betiere izaera ludiko eta hezitzailearekin, eta parte hartzera bideratuak. Doanekoak dira guztiak.

2016an, urtean zehar bederatzi liburutegietan irakurzaletasuna sustatzeko egindako 403 jarduerak finantzatu ditu Iruñeko Udalak; 21.736,75 € inbertitu zituen horretan, eta 30.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten. Parte hartutakoen % 30 haurrak izan ziren.

Irakurketa sustatzeko jarduera garrantzitsuenetako bat irakurketa-klubak dira. Udal-liburutegien sareak 17 talde ditu egun; hilean behin bildu, eta literaturarekiko duten grina partekatzen dute taldekideek. Iruñeko liburutegi guztiek dituzte irakurketa-klubak, Etxabakoitzkoak izan ezik.

UDALAREN PROGRAMAK

Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrak kontzertu-zikloak antolatzen ditu urtean zehar, eta guztiak finkaturik daude jada hiriko kultur programazioan, hala nola "Harresien Jaialdia", "Hemengo Antzerkiaren Erakustaldia", "Erligio Musikako Jaialdia", "Europako Musika Eguna", "Jazza, kalean", La Pamplonesa bandaren kontzertuak edota "Eguberrietako kontzertuak". Programa horietan guztietan, 48.730 pertsonak hartu zuten parte, 107 emanalditan. Sanferminetako jardueretako 1.500.000 ikusleak gehitu behar zaizkie zifra horiei.

La Pamplonesa musika-bandarena izan zen entzule gehien bildu zituen zikloa, 15.238 pertsona joan baitziren 19 kontzertutara. “Erljio Musikako Jaialdia” zikloak jendetsuenetakoa izaten jarraitzen du. Aste Santuaren inguruan egiten da, eta, iaz, 10 emanaldi egin ziren hiriko hainbat elizatan; guztira 5.382 lagun inguru bertaratu ziren. 2.400 pertsona bertaratu ziren Zitudadelan eta Alde Zaharreko zein Zabalgunek kaleetan, ekainean, ‘Jazza, kalean’ zikloaren barruan egindako 5 kontzertuetara; 2.996 ‘Hemengo Antzerkiaren Erakustaldia’ zikloko 14 emanaldietako baten batera joan ziren; eta 2.250ek Gazteluko plazan udako arratsaldeetan txistulari eta gaiteroekin egiten diren dantzaldietara jo zuten.

Halaber, Iruñeko Udalak Eguberrietako programa proposatzen du, hainbat udal-alorrek egina; haietatik, 35 jarduera Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrekoak dira. Kontzertuak, antzerkia, hitzaldiak, zinema eta tailerrak daude jende guztiarendako programazio horren barnean. 18.885 lagunek eman zuten izena. Gainera, beste 2.000 hurbildu ziren Udaletxe plazara Olentzerori ongietorria egitera.

Programak	Ekitaldi-kopurua.	Parte-hartzaileak
Erljio Musikako Jaialdia	10	5.382
Jazza, kalean	5	2.400
Dantzaldia, txistulari eta gaiteroekin	18	2.250
Hemengo Antzerkiaren Erakustaldia	15	2.996
La Pamplonesa banda	23	14.817
Eguberrietako kontzertuak	35	18.885
Ongietorria Olentzerori	1	2.000
GUZTIRA	107	48.730

Bada beste jarduera bat Udalak antolatzen duena: ikastetxeen bisitak Erraldioen eta Buruhandien Konpartsako figurak bertatik bertara ezagutzeko; 4.851 ikasle egon ziren horietan, 127 taldetan banatuta.

DIRU-LAGUNTZAK ETA LANKIDETZA-PROGRAMAK

Jarduerak antolatzeaz gain, Udalak profesionalak ez diren talde artistikoak sustatzeko zikloak ezartzen ditu, entitateei diru-laguntzak ematen dizkie kultur jarduerak antolatzeko, eta zenbait urtetarako kontratuak eta hitzarmenak sinatzen ditu entitateekin eta musika- zein arte-taldeekin.

Azken horien barnean, honako diru-laguntza hauek ematen ditu: La Pamplonesa udal-bandari, 1.031.241 euro; udal-gaiteroei, 42.594 euro; udal-txistulariei, 56.283 euro; Olentzeroren Lagunak elkarteari, 15.000 euro; Errege Magoen Kalgata elkarteari, 50.000 euro.

Gainera, 357.543,06 euroko diru-laguntzak eman zizken 30 entitateri kultura- eta arte-jarduerak 2016an egiteko. Deialdiak bi laguntza-ildo ditu: bata, ekoizpen-jardueretarako, eta bestea, kultura sustatzeko eta/edo zabaltzeko proiektuetarako. 2016an diruz lagundutako entitateak:

Entitatea	Diru-laguntza
Iruñeko Ganbera Abesbatza	15.689,45
Nafarroako Argazkigintza Elkartea	5.263,55
CMC Garaikideak elkartea	9.152,18
Ruido de Fondo kultur elkartea	3.945,00
Nafarroako Kazetarien Elkartea	1.161,60
E 7.2 elkartea	8.000,00
Gayarre Operaren Adiskideen Elkartea (AGAO)	25.000,00
Artearen Adiskideak musika-elkartea	3.118,20
Nueva Babel elkartea	4.000,00
Nafarroako Ganbera Opera Elkartea	24.819,28
Tiza elkartea	8.245,27
Nafar Ateneoa	17.375,78
Nafarroako Ganbera Abesbatza	5.000,00
El trastero creativo	4.440,72
El Colectivo Nafarroako Antzerki Eskola	25.000,00
Nafarroako Abesbatzen Federazioa	25.000,00
Atena Fundazioa	9.763,50
Pablo Sarasate Fundazioa	50.000,00
Jaunaren Nekaldiaren Ermandadea	9.320,18
Iruñeko Orfeoia	50.000,00
Anaitasuna kultur, kirol eta aisialdi elkartea	935,20
Elkarte Hispano-alemana	718,20
Karikiri elkartea	415,00
Nafarroako Dantzarien Biltzarra - Dantza Federazioa	2.977,00
Ortzadar Euskal Folklore Elkartea	2.014,58
Arquetipo Comunicación SL	5.838,80
Artyco	3.086,33

Entitatea	Diru-laguntza
Navarra de cine	5.650,00
Producciones maestras	6.613,24
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	25.000,00
GUZTIRA	357.543,06

Udalak ekitaldi hauetan guztietan lagundu zuen: El Drogasek Zitudadelan emandako kontzertuan, Ateneoarekin egindako poesia-lehiaketan, auzoko festen antolakuntzan, Tres Sesenta jaialdian, Dantza Egunean, Actua jaialdian eta Cadena Ser irrati-kateak sanferminak baino lehen antolatutako kontzertuan, On Fire flamenko-jaialdian, Olentzeroren jaian eta Santas Pascuas jaialdian.

2016an, Iruñeko Udalak berriro parte hartu zuen haurrentzako **antzerki-testuen lehiaketan**, 2014tik baitzeraman egin gabe. Nafarroako Antzerki Eskolarekin sinatutako hitzarmenaren bidez egiten da lehiaketa, bi modalitatetan: euskaraz eta gaztelaniaz. 53 lan aurkeztu ziren lehiaketara (46 gaztelaniaz eta 7 euskaraz). Modalitate bakoitzeko irabazleak 2.500 euro jaso zituen.

EUSKARA

Iruñeko Udalaren euskara-unitateak kultur jarduerak programatzen ditu helduentzat zein haurrentzat, baita sormen tailerrak, lehiaketak eta literatur lehiaketak ere. Era berean, *Ze Berri?* aldizkaria argitaratzen da, beste udal batzuekin batera, eta kultur entitateen artean diru-laguntza banatzeko hainbat deialdi egiten dira, euskarazko jarduerak egiteko.

Heldu eta gazteendako kultur programazioak 5.628 lagun bildu zituen, 2016an, antolatutako 40 jardueretakoren batera bertaratu baitziren. Udalak 85.206,84 gastatu zituen jarduera horietan. Euskarazko antzerki-programazioa da: Antzerki Aroa eta antzerkia civivoxen (584 ikusle 7 emanalditan) zein 'Antzerkiaz Areago' bigarren hezkuntzako institutuei zuzendutako antzerki-programa (1.040 pertsona 2016an egindako 5 emanaldietan). Horrez gain, formatu txikiko zazpi kontzertu egin ziren 'Kantu eta Hitza' egile-abestien zikloaren barruan, baita Bide Ertzean taldearen agur-emanaldia ere; 1.072 pertsona joan ziren guztira bietara.

Bestetik, 1.150 pertsona joan ziren 'Bertsoaroa' bertsolaritza-programaren barruko jardueretakoren batera, 500 lagun erregistratu ziren 'Europa bat batean' izenburupean Zentralen egin zen jardueran eta 842 bertaratu ziren Nafarroako Ateneoarekin batera antolatutako euskarazko hitzaldi edo errezitaldietara. Halaber, "Irriziklo" programaren zortzigarren edizioa antolatu zen 2016an (2015ean ez zen egin), eta 440 pertsona guztira joan ziren egindako bost emanaldietara.

HELDU ETA GAZTEENDAKO KULTUR PROGRAMAZIOA

URTEA	EKITALDI-KOPURUA	IKUSLEAK	GASTUA
2012	36	4.888	65.743,97
2013	33	4.668	65.906,37
2014	28	3.009	53.855,08
2015	30	3.718	66.255,99
2016	40	5.628	85.206,84

(Sanferminetarako programan antolatutako ekitaldiak kanpo)

Haurrendako euskarazko programazioari dagokionez, 21 emanaldi antolatu ziren 2016an, gehienbat antzerki-arlokoak; Civivox zentroetan egin ziren gehienak, baina Zitudadelako aire zabaleko programazioak ere aurrera egin zuen. Haien artean, haurrendako antzerki-testuen Lehiaketako lan irabazlearen emanaldiak aipatu behar dira, Nafarroako Antzerki Eskolak ekoiztitakoak. Honatx lana: “Luna eta Piratak”, Maitane Pérezek idatzia. 250 ikusle joan ziren estreinaldira, eta 806, eskola-kanpainako bost emanaldietara. Haurrendako euskarazko programazioak 6.780 ikusle hartu zituen guztira 2016an. 39.522,93 euro da programaren gastua.

Iruñeko Udalak, halaber, euskarazko heziketa-programak antolatzen ditu. Adibidez, **Bertsolaritzaren Hastapenak**, Iruñeko ikastetxe publikoetan, 2016ko urtarritetik ekainera egin zena, zortzi ikastetxetako 37 taldek eta 750 ikaslek parte hartu zutela. Horiei gehitu behar zaizkie 2016/17 ikasturteko lehen hiruhilekoan hasi ziren 450 ikasleak. Eskolak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleei zuzentzen zaizkie.

2015-2016 ikasturtearen amaierak euskarazko sormen-tailerren amaiera ekarri zuen; Iruñeko Civivox sareak kudeatzen ditu orain bere programazioaren barruan. Horregatik, 2016an, urte-erdia baino ez zaio esleitu programari; 211 parte-hartzaile izan ziren, eta gastua 23.845,85 izan zen (urtarritetik maiatzera).

Lehiaketei dagokienez, Iruñeko **Gazteendako XXVI. Literatur Lehiaketa** dago, 14 eta 18 urte arteko gazteei zuzendua, bi modalitatetan: poesia eta narrazio laburra. Gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako lanak aurkez daitezke. 11 lan jaso ziren narrazioetan, eta 5, poesian. **Haurrendako XXIX. Literatur Lehiaketa** antolatu zen hiriko eta Iruñerriko Lehen Hezkuntzako eta DBHko Lehen Zikloko ikasleentzat. Horren bidez, sormena, idazmena eta adierazpen plastikoa sustatu nahi dira haur euskaldunen artean. Adinaren arabera, modalitate hauek ezartzen dira: pintura edo marrazkia, gai libreko ipuinak eta komikiak. 131 marrazki, 67 ipuin eta

103 komiki aurkeztu ziren. Gainera, 26 lan aurkeztu ziren **Egile Berriendako XXVI. Literatura Lehiaketan**.

2016an, berriro hasi ziren argitaratzen Udalak deitutako literatur lehiaketetan (egile berriak eta haurrentzako literatur lehiaketa) saritutako lanak. **Argitaratzeekin** jarraitua, Udalak Iruñeko Historiari buruz argitaratu nahi duen argitalpena, euskaraz, jorratzen jarraitu da, Udalak berak eta Ateneoak hiriko historiari buruz 2002an eta 2003an antolatutako jardunaldietara aurkeztu ziren txostenetan oinarritzen ari dena. Halaber, xakearen hastapenei buruzko argitalpen didaktiko digital baterako proiektuan ere parte hartu zuen Udalak, Nafarroako Xake Federazioak babestuta.

Era berean, laguntza ematen jarraitu zitzaion ‘Ze Berri?’ **euskararen sustapenerako udalarteko aldizkariari**, 6 zenbaki argitaratu baitziren; 23.000 ale egin ziren guztira, hiriko auzo gehienetako postontzietan utzi zirenak. Aldizkaria argitaratu eta banatzeak 22.151,09 euroko gastua dakar.

Beste alde batetik, **euskararen sustapenerako jarduera eta programak egiteko diru-laguntzetarako deialdia bat** bultzatu ohi du Udalak, baina esparru berrietara hedatuta iaz (jarduera kultural eta artistikoetara mugatzen zen lehen eta, horrez gain, Iruñean egindako jarduerak kontuan hartzen dira orain, albo batera utzita diruz lagundutako erakundeak hirian helbideratuta dauden ala ez). Hamaika entitateri lagundu zien deialdiak, 65.000 euro banatuta guztira. Diru-laguntzak jasotako jardueren artean, hiri-tailerrak, monitoreak prestatzeko plan bat, euskara-ikastaroak eta kultur programazioa daude.

DIRU-LAGUNTZAK JASO DITUZTEN ENTITATE ETA EKIMENAK	ZENBATEKOA
<i>Karrikiri elkarte</i>	14.265 €
<i>Arturo Campion Elkarte Kulturala</i>	1.956 €
<i>Euskaldunon Biltoki Elkarte</i>	2.806 €
Dindaia fundazioa	20.917 €

Udako Euskal Unibertsitatea	7.361 €
Nafarroako Bertsozale Elkartea	4.954 €
Iruñeko Euskaingintza	6.395 €
Euskaraz Koop elkartea	1.927 €
Xaloea Telebista	2.138 €
Behatokia	2.205 €
Nafarroa Retina elkartea	247 €
GUZTIRA	65.000 €

2016an, gainera, euskara ikasteko ikastaro guztietarako (arruntak, barnetegiak, online, trinkoak eta abar) bekak emateko deialdia egin zuen Udalak, eta hobeak dira bekak aurreko edizioan baino. 50.000 euroz hornitu zen deialdia, baina 26.993,24 euro baino ez ziren eman, 75 eskaerari.

2016an zehar, programa berriak ezarri ziren euskara hedatzeko eta sustatzeko arloan. Hartara, deialdi bat abiarazi zen matrikulazio-kanpainan D ereduko ikastetxeei laguntzeko, euskararen sustapenari lotutako ekitaldiak (AEK-ko jaiaren karpa, Sortzen IGEetako federazioaren jaia, euskararen egunaren inguruko ospakizunak, Olentzeroren jaia) finantzatu ziren eta 'Euskaraz bizi nahi dut' filma finantzatu zen.

Kontratu bat izenpetu zen 2016an, estreinako aldiz, Euskaltzaleen Topagunearekin, 11.393,50 eurokoa, Mintzakide hizkuntza-boluntarioen programa antolatzeko; Gaztezulo aldizkariarekin ere sinatu zen kontratu bat, 'Irakurritz gozatu' programa antolatzeko, 7.892,98 eurokoa; hiriko kaleen euskarazko izendegia aztertzeko enkargua egin zion Udalak Euskaltzaindiari, 12.000 euroko gastuarekin (6.000 euro 2016. urtean sartu ziren); eta Iruñean euskararen erabilera neurtzeko enkargatu zion Soziolinguistika Klusterrari, 12.782,44 euroko gastua suposatuko duen hainbat urtetarako kontratu baten bidez (zenbateko horren erdia 2016an sartu zen).

SAN FERMIN

1,5 milioi pertsonak parte hartu zuten Iruñeko Udalak programatutako 410 ekitaldietan 2016ko sanferminetan. 2015ean baino 13.000 lagun gehiago bildu ziren Udalak antolatutako ekitaldietara, eta beste 100.000 lagun, lehen aldiz egokitu ziren bost gune kolektiboetan programatutako ekitaldietara: Basotxoan, Taconeran eta San Frantzisko, Errekoletan eta San Jose plazetan.

2016ko sanferminak iragartzeko kartela 'Sanmarrazkin' izenburukoa izan zen, Buztintxuri Ikastetxe Publikoko ikasleek sortua; Mikel Mendibil Ainzúa, Patricia Martiartu Fernández, Mikel

Santos Martínez eta Eneko Huarte Gaitak aurkeztu zuten kartela lehiaketara. Iaz, 376 proposamen aurkeztu ziren guztira. Horietatik, 166 Iruñetik jaso ziren, hau da, % 44,15, aurreko urtean izandakoaren antzera. Nafarroako beste toki batzuetatik, 69 iritsi ziren; beraz, Nafarroatik jasotako kartelak 235 ziren guztira, aurkeztutakoen % 62,5. Gainerakoetatik, 135 Espainiako beste probintzia batzuetakoak ziren, eta 6, atzeritik jasoak (% 1,6). 2015ean, 462 kartel aurkeztu ziren. Epaimahaiak zortzi kartel hautatu zituen, eta herritarrek haien artean aukeratu zuten kartel irabazlea.

2016ko sanferminei buruzko balantzea eginda, kopuru absolututan, su-artifizialak -424.000 ikuslerekin-, Erraldioen eta Buruhandien Konpartsa -185.000 parte-hartzailerekin- eta Gazteluko plazako dantzaldiak -140.000 lagunekin- izan dira ekitaldi jendetsuenak. Portzentajeetan, Gazteluko plazako dantzaldiak eta Jazzfermin zikloko ikuskizunak -aurten, berriro ere, ohiko kokagunean, Compañía plazan- izan dira arrakastatsuenak; horietan, hurrenez hurren, % 64 eta % 33 handitu dira bertaratutakoen kopuruak. Haur-programazioaren sendotzea ere agerian gelditu zen ikusle-kopuruan.

Txupinazoan, 42.000 lagunek hartu zuten parte, eta, ekitaldi horrek, berriro ere, goia jo zuen bildutako jendetzari dagokionez, besteak beste, hiriko hainbat tokitan -Gazteluko plazan, Sarasate pasealekuan, Foruen plazan, Antoniutti parkean eta Karlos III.aren eta Orreaga etorbideen arteko bidegurutzean- ezarritako pantaila erraldoiei esker.

Dena den, programaren ekitaldi jendetsuena su artifizialak izan ziren, berriro, 45.000 pertsona inguru erakarri baitzituen Gaztelugibelera; "Txapeldunen artean txapelduna" lehiaketa jokatu zen iaz, estreinako aldiz. Erraldioen eta Buruhandien Konpartsak ere marka guztiak hautsi zituen, berriro, 2016an, festen bigarren ekitaldi jendetsuena izatera iritsi baitzen. Kalkuluen arabera, Konpartsak hirian barnako goizeko ibilbideetan izaten dituen jarraitzaile fidelen saldoak gora egin du, 180.000 lagunetik 185.000ra igarota.

Dantzaldiak berriro Gazteluko plazan egitearen alde 2016an egindako apustuari -non, gainera, publikoak sailkatu baitira, adinaren arabera- babesa eman zioten dantzaldi horietara joandako 140.000 lagunek. Erantzun horri esker, dantzaldi horiek hirugarren dira festetako ekitaldi jendetsuenen artean. Gazteluko plazan -non 2015ean 90.000 lagunek hartu baitzuten parte- bi publiko-mota bildu ziren 2016an: familiak arratsaldean, eta gazteak, gauean.

Bestetik, "Jazzfermin" zikloa hasierako kokagunera itzuli zen 2016an, Compañía plazara, bi urte hortik at eman eta gero. Zikloak 19 urte egin zituen iaz, eta urteurren horretan publikoa alde eduki zuen: 10.300 ikusle bildu zituen -2015ean Sarasate pasealekuan izan zituen 3.400 ikusleen aldean-, eta aldeko kritikak ere bereganatu zituen, hedabide espezializatuen aldetik.

Beste alde batetik, 2016ko programa osatu zuten 410 ekitaldietatik % 22 familiei eta haurrei zuzendutakoak izan ziren, indartu egin baitzen programaren parte hori. Eta hona erantzuna:

2016ko programa ofizialeko ekitaldietan parte hartu izan zuten 10 lagunetik 7k bloke horretan egin zuten, goizez, eta besteak beste Konpartsaren ibilaldietan. Askatasun plazako haur-jolasparkea ere erreferentzia-puntua izan zen berriro: bertaraino hurbildu ziren 135.000 lagun, aurreko urtean baino 5.000 gehiago. Karlos III.aren etorbideko kale-antzerkiko ikuskizunek 41.300 ikusle erakarri zituzten, 2015ean baino 15.875 gehiago.

Txotxongilo-saio gehiago egin ziren, euskaraz zein gaztelaniaz, eta harrera ona izan zuten, 11.500 ikusle izan baitzituzten; haur-entzierroek ere aurreko urteko zenbakiei eutsi zieten: 9.000 parte-hartzaile; eta 10.400 umek haur-trenak erabili, Haurrentzako Dantza Jaialdian parte hartu eta Sarasate pasealekuko bi haur-antzezlanetara jo zuten. Bi emanaldi horietara –iaz lehen aldiz eskainiak ziren–, 900 haur bildu ziren.

Jazz-saioak barne hartuta, ia 340.000 lagun hurbildu ziren musika-emanaldietara. Haietatik, 198.200 pertsonak egin zuten bat kale-giroko musika-ekitaldiekin –dianetan edota fanfarreen, banden eta txarangen eskutik (165.000 ikusle)– eta folk musikarekin –11.300 lagun jotetan; 7.000 txistu eta gaitako euskal dantzetan; 2.500 festen hasierako euskal dantzetako jaialdian, etab.–.

Gurutzeko plazako dantzaldietara, 25.600 lagun bildu ziren, eta Los Diablos taldea aritu zen egunean, 5.000 lagun joan ziren haiek entzutera. Toki berean, musika-bandak aritu ziren aperitiboaren orduan, eta saio horietara 5.580 pertsona joan ziren. Foruen plazara hurbildutakoen kopurua 2015ekoaren antzekoa izan zen: 2016an, guztira, 84.900 lagun hurbildu ziren bertako emanaldietara. Kontzertu jendetsuenak bertan, Fermín Muguruzak eta New Orleans Basque Orkestrak, batetik, eta Duncan Dhuk, bestetik, eskainitakoak izan ziren, hurrenez hurren, uztailaren 6koa eta 10ekoa.

Sarasate pasealekuko musika eta dantza folklorikoen eremuari dagokionez, goizeko ohiko saioez gain (jota-emanaldiak), arratsaldean ere egin ziren saioak iaz: dantzak eta bertsolariak, zehazki; hirigunera eraman ziren berriro, beraz, eta arrakasta handia izan zuten.

“Jazzfermín” zikloan izandako 10.000 ikusleei, munduko musiken emanaldietara bildutako 14.200 pertsonak (Cuban Beats All Star, Danbakhana Afrofusión eta Kalakan izan ziren jendetsuenak) eta Antoniuttin egindako DJ saioetara bertaratutakoak gehitu behar zaizkie. Eta 1.000 lagun inguru aritu ziren gozatzen Coral Big Band delakoaren eskutik, Compañía plazan.

Zezen-ikuskizunek, berriz, 13.500 ikusle bildu zituzten; Zezensuzkoak, 35.200; Foruen plazako herri-kirolek, 5.900; Kondestable jauregiko sanferminen inguruko erakusketek –*Versus* eta *Sanferminetako kartelak*–, 3.000, eta Gayarre antzokiko emanaldiek, 2.780.

Balantzeak San Frantzisko plazan kokatuta egoten den eta bisitariei egonaldia errazago bihurtzea xede duen udal-kontsignari buruzko datuak ere jasotzen ditu: Guztira, kontsignak 850

zerbitzu eman zituen, hau da, 2015ean baino % 44 gutxiago –iaz 1.512 zerbitzu eman baitziren–.

GAYARRE ANTZOKIA

2016an, Gayarre antzokian, 87.013 ikusle guztira bildu ziren antolatutako 219 emanaldietan, hau da, 397 ikusle, batez beste, emanaldi bakoitzeko. Ikusle gehien abenduan izan ziren, 15.412; gero, azaroan eta martxoan, 10.582 eta 9.743, hurrenez hurren.

Emanaldi guztietatik, 18 familia-giroko ikusleei zuzenduta zeuden, 20 udako programazioan sartuta zeuden, 35 alokatu egin ziren, 17 Iruñeko Udalari alokatu zitzaizkion (La Pamplonesa musika-bandak jo zezan), 47 jarduera osagarrietarako izan ziren, 6 “Interpretatzaile Handiak” ganbera-musikaren zikloari zegozkion, eta 12 ikastetxeetarako egin ziren.

IKUSLE-KOPURUA

HILABETEA	Programazioa	Alokairuak	Udalari	Jarduera	Ikastetxea	Antzerkia		Udako	GUZTIRA
			alokatuak (La Pamplonesaren kontzertuak)			Interpretatzail e Handiak	familiarte an		
URTARRILA	2.403	1.487	676	193	2.184	414	1.208	0	8.565
OTSAILA	3.159	649	1.327	444	0	407	0	0	5.986
MARTXOA	2.754	4.016	1.173	922	436	442	0	0	9.743
APIRILA	3.007	1.306	2.189	602	723	0	0	0	7.827
MAIATZA	3.130	463	743	1.223	463	403	1.117	0	7.542
EKAINA	734	1.762	0	30	0	0	0	653	3.179
UZTAILA	0	0	0	0	0	0	0	3.361	3.361
ABUZTUA	0	0	0	0	0	0	0	1.955	1.955
IRAILA	0	0	0	75	0	0	0	4.692	4.767
URRIA	3.127	1.711	1.498	356	0	542	860	0	8.094
AZAROA	5.000	550	2.370	911	560	634	557	0	10.582
ABENDUA	3.774	2.680	0	201	2.363	0	6.394	0	15.412
GUZTIRA	27.088	14.624	9.976	4.957	6.729	2.842	10.136	10.661	87.013

EGINKIZUN-KOPURUA

HILABETEA	Programazioa	Alokairuak	Udalari		Ikastetxea	Antzerkia		Udako umorea	GUZTIRA
			alokatuak (La Pamplonesaren kontzertuak)	Jarduera osagarriak		Interpretatzail e Handiak	familiarte an		
URTARRILA	3	4	1	3	4	1	3	0	19
OTSAILA	6	1	2	7	0	1	0	0	17
MARTXOA	9	6	2	5	1	1	0	0	24
APIRILA	9	3	4	7	1	0	0	0	24
MAIATZA	7	1	1	4	1	1	2	0	17
EKAINA	1	4	0	1	0	0	0	1	7
UZTAILA	0	0	0	0	0	0	0	7	7
ABUZTUA	0	0	0	0	0	0	0	5	5
IRAILA	0	0	0	2	0	0	0	7	9
URRIA	9	10	3	4	0	1	2	0	29
AZAROA	14	1	4	11	1	1	1	0	33
ABENDUA	6	5	0	3	4	0	10	0	28
GUZTIRA	64	35	17	47	12	6	18	20	219

HEZKUNTZA

UDALAREN IKASTETXEAK

Iruñeko Udala hainbat ikastetxeren titularra da. Aipagarrienak Joaquín Maya Musika Eskola eta Catalina de Oscáriz Udalaren Arte eta Lanbide Eskola dira, baita Iruñeko Udalaren Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren bidez zuzentzen dituen hamabi haur-eskolak ere.

Joaquín Maya Musika Eskola musika-irakaskuntza ez-arautuko ikastetxea da, eta Iruñeko Udala da haren titularra. Chinchilla jeneralaren kalean dago. Espezialitate hauek ematen dira: akordeoia, baxu elektrikoa, bateria, bonbardinoa, kantua, klarinetea, kontrabaxua, abesbatza, instrumentu-elkarteak, fagota, zeharkako flauta, gitarra, gitarra elektrikoa, musika-hizkuntza, oboea, perkusioa, pianoa, saxofoia, tronpa, tronboia, tronpeta, tuba-bonbardinoa, txistua, biola, biolina eta biolontxelo. 2015-2016 ikasturtean, guztira 1.039 lagun egon ziren espezialitateetako batean matrikulatuta.

Horiez gain, musika klasikoari buruzko ikastaro monografikoak egin ziren, helduei bereziki zuzenduak (*Entzunaldi gidatuak*, *Artea entzutea* eta *Historiako konpositore eta estilo handiak*). 67 matrikulazio izan ziren.

Egungo **Catalina de Oscáriz Udalaren Arte eta Lanbide Eskolaren** aurrekariak 1828koak dira, urte hartan Udal Akademia sortu baitzen. Gaur egun, marrazki artistikoari eta pinturari buruzko ikastaro monografikoak ematen dira. Horrela, 2015/2016 ikasturtean, eskari guztiari erantzun zitzaien, 23 ikasle aritu baitziren marrazkian, eta 28, pinturan. Hortaz landara, 240 lagun hiruhilekoan behingo hiru lantegietan matrikulatu ziren: marrazketa, pintura eta marrazkiaren teoria.

Hamabi dira Udalaren haur-eskolak, eta milatik gora leku eskaintzen dituzte hiriko auzo desberdinetan, bai gaztelaniaz, bai euskaraz, bai ingelesez. 1.010 leku dira, zehazki, eta Nafarroako Gobernuaren titulartasunekoak diren lau haur-eskolen 314ak gehituta, 1.324 leku eskaintzen ditu guztira hiriak. Gaztelaniazko 550 leku daude (eskaintzaren % 41,52); 355 dira ingelesezko jardueradun gaztelaniazko lekuak (% 25,31); eta euskarazkoak 439 dira (% 33,17).

Gaztelaniazko eskaintzak Arrotxapea, Mendebaldea eta Mendillorriko haur-eskolak hartzen ditu. Euskarazkoak, aldiz, Printzearen Harresi, Donibane, Izartegi eta Goiz Eder hartzen ditu. Eta ingelesezko jardueradun gaztelaniazko eskaintza Hello Buztintxuri, Hello Azpilagaña, Hello Egunsenti eta José María Huarte haur-eskolek estaltzen dute.

Haur Eskolen Erakunde Autonomoak zortzi eskolatan birmoldaketa-lanak eta egokitzapenak egiteko programa bat onetsi zuen 2016an, Haur Hezkuntzaren lehen zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretuari egokitzeko. Programa lau urtean garatzea aurreikusten da, eta 2,3

milioi euro erabiliko lirateke birmoldaketa-lanetan. Horretarako, zenbait haur-eskola aldi baterako itxi beharko lirateke ikasturtearen zati batean zehar, eta haurrak beste zentro batzuetara eraman beharko lirateke obrak egin bitartean. Kopuru horrek halako 20 baino gehiago joko du Iruñeko Udalak Haur Eskolen sarean 2011-2015eko aldian egindako inbertsioa, orduan 105.433 euro inbertitu baitziren hobekuntza-lanetan, baina horrek ez zuen berekin ekarri zentroek foru-legedian jasotakoa betetzea.

Halaber, 2016an, erakunde autonomoak proposatu zuen Udalak bere gain har zezan berriro, 2017tik aurrera, jantoki-zerbitzuen ardura sei haur-eskolatan, eta garbiketa-zerbitzuena, hirutan. Horrela, erakunde autonomoak berak kudeatuko lituzke zuzenean hamaika haur-eskolako jantoki- eta garbiketa-zerbitzuak. Salbuespen bakarra José María Huarte haur-eskola da; izan ere, egonaldi erdiko lekuak eskaintzen dituen ez soilik, ez du jantoki-zerbitzurik, eta, eskola-ordu gutxiago daudenez, kanpoko enpresa batek egiten du garbiketa, kontratu murritzuta batekin.

UDALAREN LAN-ILDOAK

Udalak hainbat programa eta laguntza-deialdi diseinatu eta eskaintzen ditu ikastetxeei eskolaz kanpoko ekitaldiak bultzatzen laguntzeko eta, era berean, ikastetxeen eta beren lan-esparruko gizarte- eta ekonomia-ingurunearen arteko harremana sustatzeko. Udalak, hartara, hiru ataletan egituratu ditu.

Ikasleek eskola-ingurunea ezagutzeko programak

Iruña Ezagutu programaren helburua ikasleek gure hiria ezagut dezaten sustatzea da, hiriaren historia eta hiri-bilakaera aztertuz. Ikastetxe publikoetako eta itunduetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei zuzendua dago. 2.076 ikaslek parte hartu zuten, 38 ikastetxetako 188 ikastaldetan banaturik.

Programa horrek ikasmaterial osagarria dauka: *Iruña eta bere hiri senidetuak ezagutu* ikasliburua, Iruñeari buruzko bi joko eta DVD bat. Hiri senidetuak ikasteko jarduera ikastetxe bakoitzean egiten da, eta ikastetxe bakoitzak aukeratzen du zer hiri sakonago ikasi. 2016an, Baiona aukeratu zen gehien, eta, ondotik, Yamaguchi, Paderborn eta Pamplona Kolonbiakoa. Eskola-programa horrek, gainera, hirian bi ibilbide egiteko aukera eskaintzen du: lehenak Iruñeko historian jartzen du arreta, eta hiru orduko iraupena duen ibilbide bat egiten da Alde Zaharrean barrena. Bigarrena, berriz, autobusez egiten da eta hiriko auzoak bisitatu eta alderatzen dira, zer-nolako garapena eta bilakaera izan duten ikasteko.

Programaren osagarri, beste talde batzuei irekita dauden bisita gidatuak egiten dira. 2016an, 2.016 lagunek parte hartu zuten 180 taldetan banatuta. Taldeek Alde Zaharreko hiru ibilbide historikoren artean aukeratzen dute: harresietan barnako ibilaldiak, Donejakue Bidea Iruñean, entzierroaren ibilbidea, ibilbide historiko edo hirigintza-ibilbide bat, eta hiriko auzoak ezagutzea. Taldeek, alde handiz, ibilbide historikoa aukeratu zuten (75 talde).

Apirilaren 16an, **Zuhaitzaren Eguna 2016** ospatu zen, eta Patxi Larraizar eta Buztintxuri ikastetxe publikoetako zein La Compasión-Escolapios ikastetxe itunduko ikasleek parte hartu zuten. Buztintxuriko lorategi batean landatu ziren aleak: Gingo Biloba (7), Carpinus Betulus (1) eta Carpinus Betulus Fastigiata (2). Lehen Hezkuntzako 5. mailako 90 ikasle parte-hartzaileek aurrez ikasi zuten berdeguneak hirietan oso garrantzitsuak direla, bai eta behar bezala zaintzea ere, landaketa-jardueraren osagarri. Jardueraren helburua Iruñeko berdeguneak hazten laguntzea da eta, era berean, ikasleak kontzientziaztea landare-espezieek hirian berez duten balioaz, bai eta behar dituzten zainketez ere.

Jarduera artistikoak sustatzeko eta irakurmen-gaitasuna hobetzeko programak

1996-97ko ikasturtetik hona, Udalak **antzerki-lantegiak** garatzen ditu Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, haurrek dituzten adierazpen- eta antzezpen-baliabideak aberastea helburutzat hartuta. Hartara, teknikak ere irakasten zaizkie, besteekiko komunikazioa eta harremana errazteko, eta era berean, beste curriculum-arlo batzuekin zerikusia duten ikaskuntza-prozesuak finkatzeko. Programa hau Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleei zuzendua dago, dramatizazioa eta jolas dramatikoa landu ditzaten; halaber, Lehen Hezkuntzako 5. mailakoentzat da, txotxongiloen bidezko dramatizazioa landu dezaten. 2015/16 ikasturteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetarako unitate tematikoa 'Biziaren hastapenak eta bizitza Lurrean: bidaia bat jatorrira' izan zen, eta 2016/17 ikasturterako, aldiz, 'Elementuak: Airea'. 2015/16ko ikasturteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan, 93 taldek parte hartu zuten; 2016/17ko lehen hiruhilekoan, berriz, 26 ikastetxetako 87 taldek. Programa Nafarroako Antzerki Eskolak kudeatzen du, berariaz deitzen den lehiaketa publikoaren esleipenduna baita.

'**Irakurzaletasuna sustatzea**' programa 1996an hasi zen eta, 1997/98ko ikasturtetik aurrera, Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei ez ezik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei ere zuzenduta dago, publikoei nahiz pribatuei, gaztelaniaz nahiz euskaraz. 2016an, 273 jarduera egin ziren. Guztira, 9.463 parte-hartzaile izan ziren, Haur eta Lehen Hezkuntzako 41 ikastetxetakoak, Bigarren Hezkuntzako 26 ikastetxetakoak, Hezkuntza Bereziko 2 ikastetxetakoak eta Helduen Hezkuntzako 2 ikastetxetakoak. Programan hiru jarduera-mota garatzen dira: irakasleendako mintegiak, oso egokiak liburuei buruzko aipamen eguneratuak emateko (iaz, 71 orientazio-bilera egin ziren); ahozko narrazio-saioak, hau da, munduko hainbat

herrialdeetako herri-ipuina kontatzen dira (121 narrazio), eta haur-literaturako idazleekiko topaketak, eta horren baita, egile horien kontakizunak irakurtzen dira ikastetxera bisitan joan aurretik (81 topaketa).

Berrikuntza gisa, 2016an zehar, Iruñeko Udalak hitzarmena izenpetu zuen Jaume Bofill fundazioarekin, **Lecxit programa** abiarazteko Iruñean ('Irakurmena heziketa-arrakastarako' gaztelaniazko akronimoa da). Programa aitzindaria da, Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurmena hobetzeko, eta hainbat boluntarioek laguntzen diete irakurtzen. Ekimena Katalunian sortu zen, 2011-2012 ikasturtean, eta 61 herri eta 120 ikastetxetara hedatu da, eta lurralde horretatik irtengo den lehen aldia da honako hau, Iruñera heltzeko.

Astean behin, irakurtzeko espazio bat eratzea da Lecxiten jardura nagusia. Bertan, Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailetako ikasleek elkarrizketa- eta irakurketa-aldiak partekatzen dituzte boluntarioekin, eta horrek ikasitakoa errotzen eta irakurmena hobetzen laguntzen die. Boluntarioek entretenimendurako, konfiantzarako eta heziketa-konpromisorako denbora tarte bat sortzen laguntzen dute, parte hartzen duten ikasleekin. Lecxit programaren gakoa da era ludikoan eta atseginean lan egitea, eta hori boluntarioek eta parte hartzen duten haurren inguruko inplikazioak egiten dute posible. Programa 2017an estreinatuko da, baina 2016an hasi zen Udala ikastetxeak eta boluntarioak erakartzen; hartara, 8 ikastetxetan hastekoa da, 33 boluntarioen eskutik, 2017ko hasieran.

Programa horiez gain, Udalak **hainbat lehiaketa** deitu zituen. Alde batetik, XXVI. Literatur Lehiaketa antolatu zen, Lehen Hezkuntzako eta DBHko lehen eta bigarren mailetako ikasleentzat. Aurreko edizioetan bezala, bi modalitate ezarri ziren: "Ipuina", Lehen Hezkuntzako 1. mailatik DBHko bigarren mailara bitarteko ikasleentzat, lau kategoriatan banaturik, ikasmailen arabera; eta, "Komikia", Lehen Hezkuntzako 5. mailatik DBHko 2. mailara bitarteko ikasleentzat, bi kategoriatan banaturik adinen arabera. Guztira, 587 lan aurkeztu ziren.

'**Dibuja Pamplona/ Iruña Marraztu**' lehiaketa Nafarroako Unibertsitateko Arkitektura Eskolarekin batera egiten da, eta XVI. ediziora iritsi zen iaz; sari gisa, 3.720 euro banatu zituen, marrazteko materialean. Iruñeko San Frantzisko plaza aukeratu zen edizio berrirako, eta 20 ikastetxetako 101 ikasle aritu ziren. Hona hemen irabazleak: Patricia Arcocha, Santiago Muracciole eta Ana Escudero, 'A' kategorian (Lehen Hezkuntzako 3. eta 5. ikasmailetakoa), eta Felipe de Lucca, Ander Martikorena, Imanol González eta Josetxo Alonso, 'B' kategorian (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. ikasmailetakoa).

Diru-laguntzetarako deialdia

Iruñeko Udalak, urtero, laguntzen deialdia egiten du hiriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoei zuzenduta, **eskola-liburutegien** funtsa handitzeko eta **ikasmaterial suntsikorra erosteko**. Ikastetxe bakoitzari zenbat diru eman ikastetxe bakoitzaren matrikularen arabera finkatzen da. 2015/2016 ikasturtean zehar, guztira 8.518 ikasle egon ziren matrikulatuta ikastetxe publikoetan, gehi Iribarren Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxeko 1.100 lagun, eta banaturiko diru-laguntzen zenbatekoak 98.330 euro jo zuen guztira: 38.175 euro eskola-liburutegietarako, eta 60.155 euro, ikasmaterialerako; gehieneko diru-laguntza/ikaslea erlazioa 5 euro eta 9 euro izan zen, hurrenez hurren.

Bigarren deialdiak Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetakoa **eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak** laguntzen ditu diruz, eskola-eskaintzaren kalitatea hobetzen laguntze aldera. 2016an, eskolaz kanpoko jarduerengatik, 107.220 euro eman ziren diru-laguntzetan; zehazki, 20.000 ikasle inguru dituzten 44 ikastetxeren artean banatu ziren. Dirutza horren % 50 ikastetxe eskatzaileen artean hainbanatzen da, eta gainerakoa, berriz, ikastetxe bakoitzaren ikasle kopuruaren arabera.

Azkenik, ikastetxeetako gurasoek gurasoentzat beraientzat antolatzen dituzten programak eta jarduerak garatze aldera, Iruñeko Udalak urtero **diru-laguntzen** deialdi bat egiten du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako **Guraso Elkarteentzat**. 2015/16ko ikasturteko deialdia maiatzean onetsi eta 2016ko abenduan ebatzi zen; 39 elkarte aurkeztu ziren, eta 65.000 euro eman zitzairen.

KIROLA

UDAL PROGRAMAK

Iruñeko Udalak, kirolaren arloan, bi jarduketa-ildo ditu: kirola sustatzea eta biztanleria-sektore guztien jarduera fisikoa bultzatzeko proiektuak abian jartzea. Horregatik antolatzen ditu jarduerak hala helduentzat nola gazteentzat. Helduendako **mantentze-gimnasia eta aerobica** egiteko programan 1.065 lagun aritu ziren 2016an, eta klaseak hiriko kiroldegietan eta ikastetxeetan eman ziren. Udalak, halaber, **50 urtetik gorakoendako yoga** eskaintzen du jarduera fisikoen eta kirolen artean. 796 lagunek eman zuten izena.

Udalak, era berean, jende gazteagorendako jarduerak eta programak sustatzen ditu. Adibidez, **liga** bat antolatzen du **areto-futbolean infantiletan**, eta 75 taldek eman zuten izena. Diru-laguntzen zenbait deialdiren bitartez laguntzen da.

LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Iruñeko Udalak kirolari lotutako lau laguntza-deialdi egin zituen 2016an, eta 1.348.476,28 euro banatu zituen guztira, 2015ean baino % 12,3 gehiago. Honatx deialdiak: liga nazional etako lehen hiru kategorietan ari diren taldeentzat, kirol afizionatuarentzat, kirol-eskolentzat, eta kirol-emanaldi, -ikuskizun eta bestelako kirol-jarduerak antolatzeko.

Udalak 436.000 euro eman zizkien **lehen hiru maila absolutuetako liga nazional ofizial arruntetan** aritutako 46 kirol-talderi. 20 kirol-modalitatetan ari diren taldeak izan ziren onuradunak: patinajea (8), futbola eta pilota (5), igeriketa (3), areto-futbola, beisbola, tenisa, triatloia, hegats-igeriketa, patin-hockeya, atletismoa, waterpolo eta errugbia (2); eta eskubaloia, piraguismoa, padela, mahai-tenisa, gimnasia erritmikoa, saskibaloia eta voleya (1).

Esleitutako dirutik, 180.000 euro lehen maila nazionalen jokatzeko eta 700.000 eurotik gorako aurrekontua zuten taldeen artean banatu ziren, eta gainerako 256.000 euroak, deialdiaren baldintzak betetzen eta eskaerak aurkeztu zituzten beste taldeen artean.

**LEHEN HIRU KATEGORIA ABSOLUTUETAKO TALDEETARAKO DIRU-LAGUNTZAK
2015/2016 DENBORALDIAN**

ERAKUNDEAK	KONTZEPTUA	DIRU-LAGUNTZA
Anaitasuna K.K.A.E.	Gizonezkoen eskubaloia. Ohorezko maila	90.000,00
Xota F.S. Kirol Kluba	Gizonezkoen areto-futbola. Lehen maila nazionala	90.000,00
Txantrea KKE.	Gizonezkoen futbola Hirugarren maila nazionala	4.781,81
Txantrea KKE.	Gizonezkoen abiadura-patinajea. Lehen maila nazionala	2.270,47
Txantrea KKE.	Emakumezkoen abiadura-patinajea. Lehen maila nazionala	2.812,50
Amaya Kirol Hiria	Gizonezkoen abiadura-patinajea. Lehen maila nazionala	2.812,50
Amaya Kirol Hiria	Emakumezkoen abiadura-patinajea. Lehen maila nazionala	1.195,79
Amaya Kirol Hiria	Gizonezkoen igeriketa. Lehen maila nazionala	1.415,85
Amaya Kirol Hiria	Emakumezkoen igeriketa. Lehen maila nazionala	1.335,13
Amaya Kirol Hiria	Pilota (Erreminta) Ohorezko maila	682,08
Iruñeko Piraguisimo Kluba	Liga nazionala. Gizonezkoa eta emakumezkoa	5.248,68
Pamplona Kirol Kluba	Beisbola. Ohorezko maila	9.743,85
Iruñeko Tenis Kluba	Gizonezkoen eta emakumezkoen tenisa. Bigarren maila nazionala	678,71
Iruñeko Tenis Kluba	Emakumezkoen padela. Hirugarren maila nazionala	600,24
Iruñeko Tenis Kluba	Pilota (Erreminta) Ohorezko maila	930,56
Roller Team Nafarroako Irristaketa	Gizonezkoen abiadura-patinajea. Lehen maila nazionala	1.249,50
Roller Team Nafarroako Irristaketa	Emakumezkoen abiadura-patinajea. Lehen maila nazionala	1.833,48
Trikideak Kirol Kluba	Gizonezkoen triatlota. Lehen maila nazionala	5.625,00
Trikideak Kirol Kluba	Emakumezkoen triatlota. Lehen maila nazionala	5.625,00
Donibane K.E.	Gizonezkoen abiadura-patinajea. Lehen maila nazionala	957,23
Donibane K.E.	Emakumezkoen tenisa. Bigarren maila nazionala	807,42
Donibane K.E.	Gizonezkoen futbola Hirugarren maila nazionala	3.508,89
Donibane K.E.	Pilota (Erreminta) Ohorezko maila	939,82
Donibane K.E.	Gizonezkoen hegats-igeriketa. Lehen maila nazionala	993,29
Donibane K.E.	Emakumezkoen abiadura-patinajea. Lehen maila nazionala	2.245,62
Donibane K.E.	Gizonezkoen hegats-igeriketa. Lehen maila nazionala	1.241,60
Oberena Elkarte	Gizonezkoen futbola Hirugarren maila nazionala	5.625,00
Oberena Elkarte	Esku pilota. Ohorezko maila	1.894,55
Oberena Elkarte	Pilota (Erreminta) Ohorezko maila	2.110,98

Oberenak Elkartea	Gizonezkoen mahai-tenisa. Lehen maila nazionala	2.812,50
Oberenak Elkartea	Patinen gaineko hockeya. Lehen maila B	2.812,50
Pamplona Atlético Kluba	Emakumezkoen atletismoa. Ohorezko maila	17.153,70
Pamplona Atlético Kluba	Gizonezkoen atletismoa. Ohorezko maila	12.307,08
Waterpolo 9802 Kluba	Emakumezkoen waterpolo. Lehen maila nazionala	19.432,16
Waterpolo Navarra Kluba	Gizonezkoen waterpolo. Ohorezko maila	22.500,00
Anaitasuna KKAE	Gimnastika erritmikoa. Ohorezko maila	11.250,00
Basket Navarra Kluba	Gizonezkoen saskibaloia. LEB Oro Liga	37.702,66
Arga Kirol Elkartea	Beisbola. Ohorezko maila	9.603,30
Iruña Kirol Kluba	Gizonezkoen futbola Hirugarren maila nazionala	4.928,24
Pamplona Kirol Kluba	Gizonezkoen futbola Hirugarren maila nazionala	2.812,50
Iruña Patin Hockeya	Patinen gaineko hockeya. Lehen maila B	2.251,57
"La Unica" Peña	Gizonezkoen errugbia. Bigarren maila nazionala	4.761,14
"La Unica" Peña	Emakumezkoen errugbia. Bigarren maila nazionala	2.812,50
Natación Pamplona Kluba	Igeriketa mistoa. Lehen maila nazionala	514,77
Iruña Voley KK	Emakumezkoen boleia. Lehen maila nazionala	22.500,00
ORVINA K.A.	Gizonezkoen areto-futbola Lehen maila nazionala	11.250,00

Gainera, jarduera fisikoan eta kirolean diharduten beste 37 entitatek udal-laguntza jaso zuten, **kirol-emanaldiak, -ikuskizunak eta bestelako kirol-jarduerak** denboraldian antolatzeke; guztira, 55 ekitaldi izan ziren. Guztira, 577.000 euro banatu ziren, iaz baino % 46,5 gehiago. Nafar federazioak (igeriketa, saskibaloia, hipika, judoa, gimnasia, jaurtiketa olinpikoa, pilota, karatea, taekwondo, beisbola, patinajea, kirol egokituak, mahai-tenisa, halterofilia, errugbia, eta mendi-kirolak eta eskalada), kirol-klubak (Trikideak, Anaitasuna K.K.A.E., Pamplona Squash Kluba, Pamplona Tenis Kluba, Amaya KH, Pamplona Igeriketa Kluba, Pamplona Atlético eta Nafarroako Unibertsitatea Kirol Kluba, besteak beste) eta beste entitate batzuk (Osasuna Fundazioa, ANEFIDE, Trofeo Boscos, Peña Ciclista el Gesto, Berrito Ere IT, Iruñeko Kirol Ehiztarien eta Arrantzaleen Elkartea, La Jarana eta Nafarroako Lan Kirolerako Elkartea) izan ziren onuradunak.

Iruñeko Udalak 197.476,28 euroko diru-laguntzak (2015ean baino % 6 gehiago) eman zizkien Nafarroako 11 kirol-federaziori eta 6 kirol-klubi, **kirola irakasteko eskolak** antolatzeagatik piraguismoan, pilotan, saskibaloian, xakean, areto-futboleko, eskubaloian, txirrindularitzan, beisboleko, waterpoloan, errugbian, mahai-tenisean, padelean, kirol egokituetan, triatlloan, volean, atletismoan eta badmintonean, besteak beste. Laguntzak Oberena, Ermitagaña Txirrindularitza Kluba, Trikidak Kirol Kluba, Navarvoley Kirol Kluba, Pamplona Atlético Kluba

eta Badminton Azpilagaña Kirol Kluba klubei eman zitzaizkien, baita ondoko federazioei ere: piraguismoa, pilota, saskibaloia, xakea, eskubaloia, beisbola, igeriketa, errugbia, mahai-tenisa, padela eta kirol egokituak.

Azkenik, **kirol afizionatuarendako** udal-laguntzen deialdiak 138.000 euro banatu zituen 36 kirol-entitateren artean. Anaitasuna KKAE (13.947,81 euro), Oberena (10.520,31 euro), Donibane Kirol Hiria (10.360,69 euro) eta San Cernin Kirol Kluba (9.659,46 euro) entitateek jaso zuten diru gehien. Eskariak baloratzeko, hiru atal hartzen dira kontuan: kategoria absolutua, kirol-sustapena eta instalazioen alokairua.

KIROL INSTALAZIOAK

Iruñeko Udalak bederatzi **udal-kiroldegi** ditu, eta, denboraldian, batez beste, % 71,6ko okupazioa izan zuten. Astero 752 orduz egon ziren zabalik jendearentzat, eta ordu horietatik 538,5 erreserbatuak egon ziren, klubek, ikastetxeek edota kirol-programek erabil zitzen. Kirol-instalazioak Arantzadi, Arrosadia, Azpilagaña, Ermitagaña, Ezkaba, José María Iribarren, Arrotxapea, Mendillorri eta Sanduzelaiko kirol-pista estaliak dira.

Hona hemen zer kiroldegik izan zuten okupaziorik handiena, klubek, ikastetxeen edota kirol-programen erreserbei dagokienez; Ermitagaña (86 ordu erreserbatuen % 91,5), Azpilagaña (bere ordutegiaren % 88,5 erreserbatua) eta Mendillorri (eskura dauden 86,5 orduen % 87). Sanduzelaiko kiroldegian eskura dauden orduen % 86 zeuden okupatuak; Ezkabakoan, % 62; Arrotxapekoan, % 81; Arrosadikoan, % 54; eta José María Iribarrenen % 53. Arantzadiko kiroldegi estaliari dagokionez, aldiz, okupazioa % 32koa izan zen. Bederatzi kiroldegietatik, zortzi astelehenetik ostiralera daude zabalik, 08:30etik 22:30era, eta larunbatetan, 08:30etik 21:30era. Arantzadiko pista da bestelako ordutegia duen bakarra, kirolgunearen instalazioetara egokitua.

Arantzadiko Kirolguneak eta Sanduzelaiko Kirol Hiriak 68.577 sarrera saldu zituzten 2016an; hau da, 2015ean saldutako 67.176ak baino % 2 gehiago. Era berean, urte osorako 3.996 abonamendu saldu ziren (udako denboraldia barne), hau da, 2015ean saldutakoak halako bost, 742 saldu baitziren. Udako abonuek ere gora egin zuten; hiru hilabetetarako dira, eta 2.286 saldu ziren, hau da, aurreko urtean saldutako 2.106ak baino % 8,5 gehiago. Halaber, neguko 5 abonamendu saldu ziren, urtarrilaren 1etik ekainaren 15era eta irailaren 16tik abenduaren 31ra bitartekoak.

Iruñeko Udalak 30, 90 edo 180 eguneko abonamenduak erosteko aukera ematen die erabiltzaileei, Arantzadiko eta Sanduzelaiko kirol-instalazioen erabilera bultzatze aldera.

2016an, mota horretako askoz abonamendu gehiago saldu ziren: 180 eguneko 1.511 abonamendu (2015ean, 805) eta 90 eguneko 515 abonamendu (iaz, 400). 30 eguneko abonamenduak, aldiz, jaitsi egin ziren, 2015ean saldutako 2.817etatik 2016ko 1.414etara.

		Arantzadi	Sanduzelai
Sarrerren salmenta:		42.793	25.784
Abonamenduen salmenta:	Urtebetekoak	2.210	1.786
	Negukoak	2	3
	Udakoak	1.720	566
	180 egunekoak	589	922
	90 egunekoak	257	258
	30 egunekoak	578	886

2016an zehar, Nafarroako Pilota Federazioak udalarena den **Labrit pilotalekua** kudeatzen eta ustiatzen du. Harekin egindako kontratuak honako hauek guztiak hartzen ditu barnean: garbiketa, mantentze-lana, eta ondasunen, makinen eta instalazioen kontserbazioa eta zainketa. Kontratuaren kostuak 175.400,15 euro egin zuen. Federazioak eskupilota eta erreminta bultzatzeko kirol-eskolak programatzen ditu, baita pilota-selekzioen entrenamenduak eta afizionatuen lehiaketa ofizialak ere. Txapelketa desberdinetako finalak ere jokatzen dira, eta pilota profesionaleko jaialdiak ere. Aldian behin, izaera sozial edo kulturalako jarduerak egiteko ere erabiltzen da pilotalekua.

Pilotalekuaren okupazio-maila handia da: arratsaldeko orduen (15:00-23:00) % 90etik gora, urtariletik maiatzera arte eta urritik abendura arte. Goizeko orduen (10:00-15:00) okupazio-maila, aldiz, % 65ekoa eta % 66koa da bi tarte horietan, hurrenez hurren. Bukatzeko, udako lauhilekoan, ekainetik irailera arte, % 13koa da okupazio-maila goizean, eta % 51koa, arratsaldean.

Caparrosoren errota eta Mendillorriko trinketa zein kirol-pabilioia ere Udalarenak dira. Nafarroako Piraguismo Federazioak, Iruñeko Piraguismo Elkartearekin batera, **Caparrosoren errota** udal-lokala kudeatzen eta ustiatzen du piraguismo-zentro eta taberna-jatetxe gisa; mota guztietako jarduerak egiten dira han, bai aisialdikoak, bai entrenamendukoak zein errendimendukoak. **Mendillorriko trinketa eta kirol-pabilioia** Gesport SL-k kudeatzen ditu, 149.193 euro ordainduta.

Belar sintetikodun udal futbol-zelaiak ere kudeatzen ditu; Sanduzelain, Lezkairuko zaldutan eta Arrotxapean daude. Bereziki, oinarri-kiroleko futbol-taldeentzako entrenamenduak eta partidak egiten dira haietan. Honako ordutegi hauetan okupatzen dira: astelehenetik ostiralera,

16:00etatik 21:30era; larunbatetan, 09:30etik 14:30era eta 14:00etatik 21:30era; eta igande eta jaiegunetan, 09:30etik 14:00etara.